

en pocas palabras...

hitz gutxitan...

BERDINTASUNERAKO LANGILEAREN LANBIDE-IRUDIA



Ikusezintasunaren eta ostrazismoaren artean

*Asociación Profesional De
Agentes Del País Vasco*

*Euskal Herriko
Berdintasunerako
Langileen Elkarteak*

Berdintasunerako langilearen lanbide-irudia sendotzen ari da azken hamarkadetan, talde feministek eta mundu osoko emakumeek eginiko aholkulariaren esker. Izan ere, nazioarteko agenda politikoak sexuen arteko berdintasuna kontuan hartzea lortu dute. Baina zer edo nor da Berdintasunerako Langilea?

Berdintasunerako langile edo teknikaria aholkulari profesionala da, eta, berdintasun kontuetan, espezializazio handiko aholkularitza ematen die erakunde publikoei, enpresei, fundazioei, Go-

bernuz Kanpoko Erakundeak eta bestelakoak. Helburua genero arteko alde desagerraraztea da, hark eragozten baitie emakumeei gizonetikiko berdintasunean bizitzea. Horretarako, Berdintasunerako Langileak aipatu erakundeekin berdintasuna sustatzen dituzten jarduerak aztertu, azaldu, proposa-

tu, diseinatu, koordinatu eta ebaluatu behar ditu; jarduerak horiek bat etorri behar dute Arauzko Berdintasunarekin, Ekintza Positiboarekin eta Genero-mainstreaming delakoarekin.

Hainbat faktore gure zeregin profesionalerako oztopo larria izan ez ezezik, emakume eta

En nuestra comunidad, y desde hace dos décadas, un reducido número de personas (en su inmensa mayoría, mujeres) vienen desempeñando esa actividad profesional sobre todo en el ámbito de la administración pública, sin que aún haya consenso sobre cuáles debenser sus funciones, competencias y rango profesional.

gizonen arteko berdintasuna bermatzea eragozten dute. Faktore “kaltegarri” horietan lehena Berdintasunerako Langilearen lanbideak duen izendapena bera genuke: Berdintasunerako Teknikaria, emakume eta gizonen arteko Berdintasunean Aditua, Berdintasunerako Aholkularia eta abar. Halaber, tokiko administrazioak zera bultzatzen ari dira: berdintasunerako langileentzako lanpostu deialdiak egiterakoan, teknikaria, berdintasunean aditua ez ezik, gizarte-zientzietako beste espezialitate batzuetan ere aditua izatea exijitzen dute.

Egun, EAEen berrogeita hamar berdintasunerako langile inguru ari dira lanean, baina horietatik gutxi batzuek baino ez dute lanpostu finkoa. Gainerakoen egoera, aldeak alde, arras ezegonkorra da: soldata baxuak eta eskumen gutxi dituzte kalitatezko lana egin ahal izateko. Bestetik, kezkarria da nola nagusitzen ari den, aipatu zerbitzuak eskaintze aldera, enpresa pribatuak

Nos preocupa especialmente la tendencia cada vez mayor a subcontratar este servicio con empresas privadas, con lo que ello implica en cuanto a la adquisición (en este caso pérdida) de derechos laborales.

azpikontratatzeko joera, lan eskubideak lortzeko helburuan ondorioak izan baitezake horrek.

Horrez gain, Berdintasunerako Langileak kontratatzeko orduan, ekintza publikoek albo batera uzten dituzte prestakuntza arloko betekizunak. Adibide bat jartzearen: orain arteko planteamendua ikusita, badirudi gidabaimena edukitzea nahikoa dela berdintasunerako politikak eta planak gauzatu ahal izateko. Zenbaitetan, gainera, hautagaiak egoiak diren ala ez baloratu behar duten epailek ez dute berdintasunari buruzko inolako ezagutzarik. Beste horrenbeste gertatzen da erakunde publikoen dirulaguntzen bidez antolatutako prestakuntza-ikastaroekin; ikastaroa ematen dutenci

ez zaie prestakuntza jakin bat exijitzen, eta edukiak ez dira kontrolatzen.

Asociación Profesional de Agentes de Igualdad del País Vasco-Euskal Herriko Berdintasunerako Langileen Elkartearen (apaipaisvasco@yahoo.es) gauden profesional guztion iritziz, aholkulariak homologatzea ez da nahikoa emakume eta gizonen arteko berdintasunerako bidean aurrera egiteko; ezinbestekoa da, bai erakunde publikoetan bai pribatuetan, profesionalak kontratatzea eta haiei lan baldintza duinak eskaintzea, prestakuntza espezializatua exijituz eta eskumen nahikoa emanez. F

En la actualidad, del medio centenar de Agentes de Igualdad en activo de la CAPV, tan sólo unas pocas han obtenido plaza fija. El resto trabaja en condiciones de mayor o menor inestabilidad, algunas además en situación de precariedad, con sueldos bajos y competencias muy reducidas para desempeñar un trabajo de calidad.